

- 1. Amaia** antzokiko sarreran gaude ilaran. Bat-batean pertsona bat etorri eta ilara saltatu du. Ilaran dagoen pertsona bat haserretu egin da eta esan egin dio, modu zakarrean. Bestalde, ilaran bada beste pertsona bat, gertatutakoak ez diona larregi axola, izan ere, goiz edo berandu denak sartuko dira aretora. Bada hirugarren pertsona bat, "kolau" (ilaran sartu) denari errespetu osoz azaldu diona egin duen hori ez dela zuzena.
- 2. Nerea** eta Maikel mugikorrean ari dira ikusten gelakideen irteerako argazkiak. Tartean Jennifer ikusi dute eta barrez lehertu dira haren gizentasuna dela-eta. Zuk ikusi duzu zer gertatu den, baina ez dizu axola. Miren, ostera, zure ondoan dago eta haserretu egin da. Esan diozu lasai egoteko, ez dabilzala zutaz barrezka.
- 3. Herriko** plazan gaude jaietan eta erromeria dago. Bat-batean musika geratu da eta su artifizialak hasi dira. Bi haur eta txakur bat negarrez hasi dira. Zure gurasoei eta anaiari gertatutakoaren berri eman diezu. Anaiak paso egin du eta gurasoek diote lasai egoteko, laister amaituko dela.
- 4. Aurreko** batean lagun batekin paseoa nindoan Monterron parketik. Txakurra zeraman eta bat-batean kaka egin zuen. Txakur kaka bertan utzi behar zuela ikusita, jasotzeko eskatu nion. Lagunak jaso egin zuen eta aurrera jarraitu genuen.
- 5. Samira** gaur etorri da gelara. Irakasleak dio harekin jator jokatu behar dugula. Mikelek paso egiten du beraz. Nik, kaixo esan diot. Eta Julen, berriz, keinuka eta ozen berba egiten hasi zaio.
- 6. Auzoko** parkera jaitsi zara eta han Anartzekin egin duzu topo. Anartzek ez du zure eskolan ikasten baina txikitako laguna da. Zu, berriz, gelakideekin zaude. Zure gelakide Mirenek esan dizu Anartzi ez egiteko jaramonik. Baina Julenek dio futboleko gutxi gabela eta agian beharrezkoa izango dugula.
- 7. Ainara** eta Josu skate parkera gerturatu dira. Han auzoko mutil batzuk daude, nagusiagoak direnak. Ainarak Josuri esan dio nagusi horiek joan arte ez dela arituko patinetean, eta lurrean eseri da. Josuk, Aimar ezagutu du. Bera baino 3 urte zaharragoa da eta keinu egin dio.
- 8. Aimar**, Maikel eta Julen eserita daude kaleko jarleku batean. Parean Anartz dago. Hirukotea mugikor batekin ari da jolasean. Anartz, berriz, lagunaren zain dago izozki bat jaten. Bat-batean Anartzek muki bat atera du hatzamarrekin. Julenek grabatu egin du eta Maikeli esan dio ez dakiela sare sozialetan partekatuko duen edota tiktok bat egingo ote duen. Maikel ados dago eta Aimar ez.
- 9. Zuek** Maddi, Marta eta Mikel kanpoko igerilekuetan zaudete. Julen ere zuekin dago, baina sarritan pareko lagunartera joan ohi da, haiek futbol taldeko kideak baititu. Mikel krema ematen ari zaio Martari eta ondoren moda desfilea egitea proposatu du. Beraz, orrazten hasi da, ilean gomitak jarri eta abar. Julen, lotsatuta, pareko lagunartera joan da. Marta lasai dago, baina Maddi deseroso sentitzen hasi da. Mikel kantuan eta dantzan ere hasi da, bere ohiko "lumarekin".
- 10. Liburutegian** zaudete Leire, Miren, Markel eta Jusef. Markel Goazen-eko azken kapitulua kontatzen ari zaizue eta Leire eta Miren kantuan hasi dira. Liburuzainak isilik egoteko eskatu dizue eta Jusef ez dago eroso. Etxeko lanak amaitu gura ditu.
- 11. Numediak** Mikel gezurretan harrapatu du. Antza, esan du etxeko lanak egin dituela, baina, benetan, ez ditu egin. Mikelek sarri salatu izan du Numedia, berak ere gezurra esan duenean. Orain Numedia isilik dago, ez daki zer egin.
- 12. Monterronen** gaude, Alaitz, Samir eta Arkaitz. Alaitzen aitak gogor esan dizue, lokatzarekin ez jolasteko, zikindu egingo zaretela. Alaitzek kasu egin dio, Samir ere eskuak garbitzen hasi da, baina Arkaitzek jarraitzen du lokatzarekin jolasean eta, bide batez zuek zikintzen.
- 13. Eneko**, Ander eta Dilan parkeko bankuan daude pipak jaten. Dilanek aitortu du pertsona batez maitemindu dela. Eneko galdezka hasi zaio. Anderrek paso egin du.

- 14.** **U**ztaila da eta bero egiten du. Udalekuetakoek igerilekuak ipini dituzte Seberon, baina zuek ez duzue bertan izenik eman. Zuetako batek proposatu du igerilekuetan sartzea.
- 15.** **A**inara eta Maitane kaletik zoazte. Bat-batean gelako kide Samirarekin elkartu zarete eta harekin hasi zarete berbetan gaztelaniaz. Maitaneren amak esan dizue euskaraz egiteko.
- 16.** **Z**u alkatea zara, bestea, berriz herriko medikua da eta beste bat, zaharren egoitzako arduraduna. Herria erretzen ari da eta ebakuazio plana kudeatzen ari zarete.
- 17.** **Z**u irakaslea zara eta ordezkapena egitera iritsi zara gela berrira. Unai adarra jotzen ari zaizu eta gelakide batzuek, barre egiten dute. Aitorrek Unairi esan dio nahikoa dela. Baina Martak Aitorri esan dio isiltzeko eta bakean uzteko, "guay" ari direla pasatzen.
- 18.** **S**an Juanak dira eta goizeko entzierroan parte hartu gura duzu. Mikelek dio berak ez duela parte hartuko, animalien sufrimendua ren aurka dagoela. Mikel zure lagunik onena da.
- 19.** **U**ztaila da eta igerilekura joan nahi duzu. Alex eta Dysonek bonoa egin dute eta zure lagunik onenak dira. Amari eskatu diozu, baina ezetz diotsu.
- 20.** **Z**u aitona zara, 82 urtekoa, triste zaude iloba Peru ez zaizulako nahi bestetan etortzen bisitan. Peruk 12 urte ditu eta parrandazale hutsa da. Aitonak zer esan duen entzun du.
- 21.** **F**utbolearen zabiltzate. Idoiak Kermanei baloia kendu dio hanketatik eta gura barik ostikada bat eman dio. Kermanek min handia du eta Idoia asko larritu da.
- 22.** **E**goitzek Aliri liburu bat utzi zion, udan irakurtzeko. Liburua bueltatu dionean, Egoitz konturatu da zikin dagoela eta orri batzuk markatuta daudela.
- 23.** **Z**ure lagun min batek leporatzen dizu azken euskara azterketan kopia egin duzula, baina ez da egia.
- 24.** **Z**inemara joateko geratu zarete, baina Gari ez da heldu oraindik. Pelikula 10 minutuan hasten da. Gari ez du telefonoa hartzen.
- 25.** **G**izon bat lurtean jesarrita ikusi duzue paseatzen zabiltzatela. Ematen du bero kolpe bat izan duela, eta inguruan ez dabil pertsona heldurik. Ane gizonarengana hurbildu da, ea laguntzarik behar duen galdetzeko. Zuetako batek mugikorra daroa aldean.
- 26.** **N**ataliaren gurasoak banandu egin dira eta orain aste bat amarekin egoten da eta beste aste bat aitarekin. Konturatu zarete Nataliari aldaketa honek umorean eragin diola, eta triste igartzen duzue. Zerbait egitea pentsatzen ari zarete, ondoan zaudetela esateko.
- 27.** **A**lize zure lagun mina da eta denbora asko ematen duzue batera. Azken aldi, baina, Hodeirekin pasatzen ditu ordu asko eta ez dizu beraiekin egotera gonbidatzen.
- 28.** **N**ereak hanka hautsi du eta koadrilan daroazue gurgildun aulkian. Monterronera joan gura duzue, baina Pablo Uranga kalean autoak txarto aparkatuta daude eta ezin zarete pasatu espaloitik.
- 29.** **M**ikele eta Laura Kurtzetxikira igo dira lasaitasun bila eta bertan daudela gelako Unai eta Miren etorri dira. Bat-batean musika jarri dute topera. Zuek ez zaudete eroso.
- 30.** **J**olas parkean zaudete lagun taldean. Igor haserretu egin da partida galdu duelako eta txirristari ostikoka hasi zaio. Zuek harrিতuta zaudete eta txirrista apurtuko duen kezka duzue.